

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Doako laguntza juridikoaren zerbitzuaren eskariak % 5,9 egin du behera hamar urtez gora egin ondoren

Gobernuak 2,5 milioi euro bideratu zituen 2010ean abokatuen eta prokuradoreen elkargoek eskaintzen dituzten zerbitzuen gastuak ordaintzeko

Jueves, 28 de abril de 2011

Doako laguntza juridikoa Nafarroako Gobernuak ematen du Foru Erkidegoko abokatuen eta prokuradoreen elkargoarekin koordinatuz. 2010ean 8.794 eskaera jaso zituzten; % 5,9 egin dute behera eta azken hamar urteetan eskaerak lehen aldiz murriztu dira. Beherakada askoz nabarmenagoa da barruti judizial txikiagoetan; Tafallan eta Lizarran % 22,6 eta % 10,7 egin dute behera, hurrenez hurren.



Iruñeko Justizia Jauregia

Datuen arabera, iazko ekitaldian baliabide horren eskaria egonkortu egin zen azken hamar urteetan nabarmen areagotu ondoren, izan ere, 2000. urtetik gaur egun arte (2000 izan zen lehen ekitaldi osoa justiziaren alorreko transferentziak burutu ondoren) doako laguntza juridikoaren zerbitzuaren eskaria bost aldiz ugartu da.

Nafarroako Gobernuak 2,5 milioi euro bideratu zituen iaz zerbitzu hori ordaintzeko. Zerbitzuaren helburua baliabide ekonomiko baxuak dituzten herritarren defentsa eskubidea bermatzea da. Zehazki, Gobernuak 2,2 milioi euro jarri zituen abokatuen elkargoek eskaintako zerbitzua ordaintzeko eta 264.000 euro prokuradoreek ematen duten laguntzarako. Zenbateko hori 2009ko gastuaren aldean % 1,1 gehiago da, Lehendakaritza, Justizia eta Barne departamentuak emandako datuen arabera.

Eskatzaileen sexuari erreparatuz, 2010ean zenbatu ziren espedienteetatik 4.441 gizonezkoek hasitakoak izan ziren eta 4.353 emakumezkoek hasitakoak. Esanguratsua da gizonezkoek eta emakumezkoek egindako eskaera kopurua ia parekoa izana, aurreko ekitaldietan aldeak izan baitira (2009an eta 2008an emakumeen espedienteak guztien artean % 31 eta % 44 izan ziren, hurrenez hurren;

aurreko urtean, aldiz, % 49,5). Eskatzaileen jatorriari dagokionez, 5.160 eskaera bertakoek egin zituzten (kopuru osoaren % 58,6 dira) eta 3.634 atzerritarrek; bien arteko aldea txikitzeko joera izan dute.

Jurisdikzioaren aldetik, prozedura penalak izan ziren iaz berriz ere aurkeztutako eskaeren erdia baino gehiago (% 59) eta prozedura zibilen eta familiari loturikoen eskariak ia bikoiztu egin zituzten (kasuen % 32). Administrazioarekiko auzien alorreko gatazken ondorioz eskaeren % 4 burutu ziren, prozedura zibilekoak % 3 eta atzerritartasun kasuen ingurukoak % 2.

Jurisdikzio guztietan beherakada txiki bat eman da, prozedura zibileko eta familiari loturiko espedienteetan izan ezik. Azken horien igoera egoera ekonomikoagatik izan da, laguntza juridikorako eskaeretako batzuk hipoteken zenbatekoei eta ordainketei loturiko erreklamazioak aurkezteko izan zirelako. Azpimarratzekoa da jurisdikzio penalak lehen aldiz beherako joera izan duela, % 10,5 murriztu da espedienteen kopurua. Halere, beherakadarik handiena atzerritartasun alorrean izan da; eskaerak % 30,5 murriztu dira.

Batzorde ebaluatzailea

Zerbitzuak zaintza sistema iraunkorra ere badu eta baliabidea eguneko 24 orduetan balia daiteke. Atxilotuta edo preso daudenek abokatu laguntza jasotzen dute, abokatuaren defentsa eta ofiziozko txandako prokuradore baten bidezko ordezkariak, ikuskatzeak eta funtzionamendu gastuak. Eskaera gehienez Iruñeko Abokatuaren Elkargoak arduratzen da (2010ean erregistraturikoen % 69); horren atzetik Tuterako (% 17), Lizarrako (% 8) eta Tafallako (% 6) elkargoak, prokuradoreen elkargoekin elkarlanean.

Doako laguntza juridikoaren eskaerak batzorde batek ebaluatzen ditu eta batzordea hauek osatzen dute: fiskaltzak, abokatuaren eta prokuradorearen elkargoak eta Nafarroako Gobernuaren teknikariak. Eskatzaileen diru-sarrerak eta kargak hartzen dituzte aintzat. Batzordeak eskatzailearen eskariak auzitegietan aurrera egingo duen ala ez aztertzen dute, hau da, kasua galduko den ala ez, kasuaren ebazpena beste eskaera batzuekin bat datorren ala ez edo auzian ausarkeria dagoen ala ez.

Oro har, laguntza hori eskuratu ahal izango dute familia-unitatearen urteko diru sarrerak Eragin Anitzeko Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) bikoitza baino txikiagoak dituzten pertsona fisikoek. Laguntzak zerbitzuaren % 80 edo % 100 izan daitezke, diru sarreraren arabera. Salbuespen kasuetan (familiako baldintzen arabera, seme-alaba kopurua, osasun egoera, e.a.), doako laguntza juridikoa jaso ahal izango dute IPREMen laukoitza baino txikiagoa den errenta dutenek. Nafarroako Gobernuak inolako diru sarrerarik ez dutenei ere laguntzen die (batez ere etorkinei eta espetxeetan direnei).